

Ezpalak

JON TORNER

Xabier Letek irabazi du Euskadi Literatur Saria



INIGO URIZ / ARGAZKI PRESS


XABIER LETEK irabazi du Euskadi Literatur Saria *Egunsentiaren esku izoztuak* (Pamiela) poema liburuaragatik. Itzulpen onenaren saria Antton Olanori eman diote Wilkie Collinzen *The Moonstone* liburua- ren euskaratzeagatik. *Ilargi-Harria* izenburuean plazaratu dute Elkar eta Alberdania argitaletxeek.

‘Nora’ aldizkaria Interneten

‘NORA’ euskarazko bidaia eta astialdi aldizkaria Interneten irakur daiteke jada www.nora-aldizkaria.info helbidean. Iazko otsailean plazaratu zuen aldizkariaren lehen zenbakia Sua Edizioak argitaletxeak.



Piztiak taldeak Buztanbeltza zigilupean autoekoiztu du *Gabeako kalapitxixak* diskoa. Diskoa proiektu zabalago baten aurreneko pausoa da. Josu Eizagirrek egindako bideoklipak eta film laburrak, eta Josu Aranbarriren pintura erakusketak osatuko dute egitasmoa. Azaroaren 28an aurkeztuko dute diskoa Onda- rroako Kafe Antzokian.



Fidel Castro eta Manuel Iradier dira Elkar argitaletxeak *Biografiak* bilduman plazaratu dituen liburu berrietako protagonistak. Ramon Olasagastik eta Pedro Zuberogoitiak deskribatu dituzte agintari kubarraren eta esploratzaile gasteiztarraren figurak.

Donna Conlon, Mark Dion, Chris Jordan, Ester Partegas eta beste bost artistek zabortegetatik hartutako materialez egindako obrak bildu dituzte Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean. *Zakarrontzia astintzen* erakusketak neurritz kanpoko kontsumoaren ondorioez hausnartzea du xede. 2010eko urtarrilaren 23a arte izango da ikusgai.



• **Elena Irureta aktoreak UK aldizkarian:** «Antzerkian 25 urtetan ez da ezer-ezer igo, nik azkena kobratu dut *Txirri, Mirri eta Txiribitonekin* kobratzen nuen bezalaxe. Telesailetan apurka, bakoitzak berea egiten du eta ahal duen bezala, baina hor ere ez da hainbeste igo, antzeko (...) ‘Honetaz ezin da bizi’ esaten dugunean, hainbatek erantzuten digu: ‘noski!’. Noski ez. Ni bizi izan naizelako! Eta bizi izan garelako orain 20 urte; gaur egun ezin da».

• **Unai Elorriaga idazleak *Diario Vascon*:** «Sari horrek [Espainiako Narratiba Sari Nazionala] bulartu egiten zaitu, hauspotu. Gero badaude zenbait kontraesan: batzuek, handik aurrera idazten duzun guztia ona dela esaten dute; beste batzuek, kontrakoa: idazle hau sari- tua denez, hemendik aurrera egurra emango diogu. (...)

Kritika onei ez diezu hainbeste erreparatzen. Kritika txarra, tira... baina kritika txarra eta gainera errespeturik gabe denean, tonu itsusian... horrelakoak Interneten izaten dira. Eta pentsatzen dut nirekiko: hemen lau urte eman ditut nik eta igual ez dut asmatu, baina aizu, niri errespetuz esan gauzak!».

• **Xabi San Sebastian musikariak *Entzun.com*:** «Zinean, musika irudien zerbitzuan jarri behar duzu. Ez da ikuslearen atentzioa musikara eraman behar baizik eta musika irudiak osatzeko erabili. Delikatua da eta zuzendariaren esanetara egon behar da. (...) Gauzak ateratzen dira [zuzenean jotzeko] baina panorama nahiko saturatua dagoela dirudi. Eta krisialdi garai honek ez du laguntzen...».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argaia.com/harpidetza_haria.php